

Unibertsitate ikasketak euskaraz ikasteko eskubidearen alde

Urteak dira Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK) baitan ikasle elkarteak, Kontseiluz eta hainbat gazte osatutako Hezkuntza Foroa martxan dagoela. Lantalde honek Hezkuntza Formalaren arloan gazteon eskubideen alde lan egiteko helburua du. Gazteon bizipen eta esperientziak kontutan izanez ekimen zehatzak aurrera eramaten dira eta oraingoan Euskararen Nazioarteko Egunean ikasleek euskaraz ikasterako orduan dituzten zailtasunak gizarteratu nahi ditugu.

Ez da lehenengo aldia ikasleek unibertsitate esparruan ikasgai guztiak euskaraz egiteko zailtasunak azaleratzen dituztela. Aurreko urtean medikuntzako ikasleek** (esteka sartu) hartu dute aurrea haien graduazioko hitzaldietan bizi dituzten oztupoak gizarteratuz, baina beste ikasgaietako ikasle asko egoera berdinean daude.

Hori dela eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak hurrengokoa eskatzen dio Euskal Herriko Unibertsitateari gazteon izenean:

- **EHUn ikasten duten ikasle guztiak haien ikasketak euskaraz %100ean burutzeko aukera izatea hala nahi izanez gero.** Hautazko ikasgaietan ez dago behar besteko eskaintza euskaraz burutzen duten ikasle kopuruari erantzun bat emateko.
- **Master eta gradu-ondoko ikasketetan euskarazko eskaintza handitzea.** Ikasle asko behartuta daude gaztelaniazko masterrak egitera ez baitago euskaraz egiteko aukerarik.
- **Ikerketa eguneratu bat burutu unibertsitate esparruan euskararen egoera zein den jakiteko,** bai arlo kuantitatiboan eta baita maila kualitatiboan ere.

Dokumentuan jasotzen diren ideia hauek maila orokorrean gaia gizarteratzea dute helburu eta bide batez planteatzen diren hutsuneak konpontze aldera gaiari heltzeko bultzada bat izan nahi dute.

Aurten, EGK eta UPV/EHUren arteko hitzarmena sinatu da** (esteka sartu). Helburua elkarlanean aritzea gazteentzako jarduerak antolatzen eta baterako jarduerak hedarazten UPV/EHUko ikasleei askatasunez aukeratzeko kredituak emateko aukera aztertuz jarduera horietan parte hartzeagatik, eta EGKren aldetik aholkularitza zerbitzu bat eskaintzea UPV/EHUko ikasleen oraingo parte-hartze planean.

Aurrerapausoak emateko ikasleak agente protagonista izan behar direla uste dugu eta horretarako Euskadiko Ikasle Kontseiluarekin eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera elkarlanean jartzeko prestutasuna azaldu nahi dugu.

Beraz, 2018ra begira, Hezkuntza Foroan parte hartzeko interesa eta nahia izan dezakeen ikasle elkarte, sindikatu, eragileei eta gazte orori deia egiten diegu haien proposamenak txertatze aldera eta lantaldearen aniztasuna handitze aldera.